

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

GAIA

'Artium' autobusa bi astez  
Arizmendi ikastolan/8

GAIA

2.400 litro gasolio isuri  
dira ibaira /9

LEINTZ GATZAGA

Pozik San Millanek  
utzitakoarekin /10



## BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN GAINEKO POLITIKA

Javier Madrazo herrian izan da



**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 16**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 17**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen ..... 943 71 49 07  
ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21  
Faxa ..... 943 77 18 54  
Basotxo ..... 943 77 09 81  
Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62  
Hezibide elkarteak ..... 934 79 31 32  
Industrialdea ..... 943 79 62 80  
Institua ..... 943 79 79 00  
Kirol etxea ..... 943 71 26 28  
Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40  
Liburutegia ..... 943 71 18 62  
Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
Ludoteka ..... 943 79 05 81  
Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
Murruxiko ME ..... 943 79 93 74  
Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
Osasun etxea ..... 943 71 19 59  
Otalora ..... 943 71 24 06  
Parrokiá (bulegoa) ..... 943 79 18 42  
Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77  
Postetxea ..... 943 79 28 31  
Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
Saretxo ..... 943 71 26 56  
Taxi geltokia ..... 943 79 22 33  
Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

SOS Deiak ..... 112  
Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaintza ..... 943 79 71 99  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdia ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00/12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00/10:00  
Lanegunetan: 08:00

**BASERRI AUZOETAN:**

**LARRINON**  
Domeketan: 11:30

**MENDIOLA**  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GALARTZA**  
Domeketan: 12:30

**OHARRAK**

**1973KOEN KINTO-AFARIA**  
Bihar, zapatua, 1973. urtean jaiotakoek kinto-afaria egingo dute Taberna Berrin.

**'MENDI ASTEA 2002'**  
Astelehenean, azaroaren 18an, Murruxiko Mendizale Elkarteak antolatutako Mendi Astea hasiko da. Hori dela eta, hona hemen gertatu duten egitaraua:  
Azaroaren 18an, *Europa izotz eta elurra* izeneko diapositiba emanaldia egingo dute Patricia Viscarret-ek eta Alberto Urtasunek, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

Azaroaren 21ean, berriz, *India bizikletan eta Nepalen trekking-a* diapositiba emanaldia egingo du Iker Akizuk, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

Azaroaren 22an, *Patagonia eskalatzeko* izeneko diapositiba emanaldia egingo du Eneka Guenetxeak, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

Azaroaren 23an, mendi bizikleta irteera egingo dute. Aretxabaletatik irten, eta Urkulu, Zubillaga, Urrexola eta Urrexolagaraira joan dira. Bueltan, Urkulutik Aretxabaletara jaitsi, eta hamaiketako egingo dute herrian.

Azkenik, azaroaren 24an, Toloñora mendi irteera egingo dute.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**LORAMENDI LITERATURA LEHIAKETA**  
Urtero moduan, aurten ere Loramendi Euskara Elkarteak Loramendi Literatura Lehiaketa antolatuko du. Aurten, hain zuzen ere, lehiaketa horretako 14. aldia egingo dute.  
Beti bezala, Loramendi Literatura Lehiaketan Kurtzebarriko eta Almengo ikasleek hartu ahal izango dute parte. Laster emango dugu informazio zabalagoa.

**ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN**

**Abesbatzak kantu gregorianoak grabatu zituen**


Aretxabaletako Abesbatzako hemezortzi lagunek kantu gregorianoz osatutako disko baten grabaketan hartu zuten parte orain dela zortzi urte. 1994ko azaroan hasi eta urtebete geroago amaitu zituzten lanak. Grabaketa Gasteizko abesbatza talde batekin lankidetzan egin zuten.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Ugarixua"*

Igela.  
-Probaittuzu ugarixu-ankak?  
Ba oso gozuak ei die.



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Amaia Aizpurua**  
10ean. Berandu bada ere, zorionak, Pausokako lagun partetik.



ARETXABALETA  
**Igor Altube**  
18an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko- en partetik.



ESKORIATZA  
**Irene Pereira**  
15an, urte bat. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko- en partetik

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**'Entzun!'**

Euskaraz idatzitako musika aldizkari bakarra da *Entzun!*. Zerbaki honekin aro berri bati ekin dio aldizkariak. Zerbait hila-betea atera gabe egon eta gero, formatu berriarekin eta orrialde gehiagorekin dator. Izan ere, talde berri batek hartu du aldizkari- egiteko ardura, eta, aurreko-aren filosofia berberarekin jarraitu arren, orain, erreportaje zabalagoak egiten dituzte, eta, gaurko gaiez gain, iraganeko kontuak ere jorratuko dituzte.



**ENTZUN!**

**Aldizkaria**  
Hilabetekaria

27. zenbakia

Zerbaki honetan Fermin Muguruza, Sorkun, Asgarth, Potrotaino, Primal Scream, Mala, Robert Crumb komikigilea eta musika eta zentsurari buruzko erreportajeak aurkituko dituzue ohizko atalekin batera.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!  
Ekar itzazu haien argazkiak eta emaezu ezusteko ederra!  
**Doan!**

**AZKARATE**  
aroztegia

943 76 47 19  
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak  
horma-armairuak  
tarimak • parketak

**LANTOKI BERRIA**  
LABEGARAIETAKO  
INDUSTRIALDEAN  
BERGARAN



**OSKAR GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA

**Mobiliario**  
**ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**JOSU HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak


Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08




## ATREBENTZIAEZPADA/ Uste dozu Ameriketako Estatu Batuetakuek benetan heldu ziela illargire?




**MYRIAM B. DE HEREDIA**  
langillie




**AITOR ITURRIAGA**  
langillie



**ELISABETH BEITIA**  
langillie



**MANU SILLERO**  
langillie



**IBAN GARTZIA**  
langillie



**GELY DOS SANTOS**  
langillie

Ez dakit. Gaixe bera nahiko zentzubakue dala pentsetan jat. Horrenbeste bider ikusi dogu zela heldu ziela illargire... Neuk, behintzet, siñesten dot hareik heldu ziela lehenengo.

Ez dakit, eta inporta be gutxi. Hala eta be, uste dot horrenbeste inportantzia emun bajako gai horri, amerikaneuk pekatuxoren bat gordeta eukiko dauelako izengo dala.

Ba, bueno, egixe esan, ez dakit, ez dot askorik pentsau gai horren gainen. Gaixe bera nahiko kuriosue da, baiñe, egixe esan, ez nau arduraketan. Iguel, dana montajie izengo zan.

Ez. Dana amerikaneuk egindako montajie dala seguru. Izen be, amerikaneuk holakuek die. Oin, gainera, illargire benetan heldu ziela erakusteko diru mordue gastau biher daue.

Ez. Ez dakit dana montajie izengo zan edo ez, baiñe hola izenda be, ez naz harrittuten. Amerikaneuk eza gutute... Orduen erakutsittako irudixek pelikula batekuek izengo zien.

Ez dakit, ideiarik be ez dauket. Illargixe oso urrin dau, eta hara heltzie ez da samurre izengo. Oin, amerikaneuk diruekin dana arretletan dauela; hortan, batek daki!

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK FAROLAK, ZERTARAKO?** Aspaldi urbanizatu zuten argazkian azaltzen den lekua. Espaloia egin eta, zelan ez, farola polit batzuk ere jarri zituzten, baina zertarako? Egunero pasatzen naiz farola horien ondoan dagoen bidetik, eta sekula ez ditut argizatuta ikusi. Apaingarritarako bakarrik balio badute, lore merke eta polit batzuk jarrita nahikoa zen! /A.L.

### ETABARRUAN...

<p>ASTEAN BEHIN /04</p> <p><b>Solohandin zaharberritzea</b></p> <p>Solohandiko etxebizitzetan ur eta saneamendu azpiegitura guztiak zaharberrituko dituzte.</p>	<p>ASTEAN BEHIN /05</p> <p><b>Babes ofizialeko etxebizitzak</b></p> <p>Javier Madrazok iragarri zuen datorren urtean 14 etxebizitza sozial egingo dituztela Aretxabaletan.</p>	<p>KIROLA /06</p> <p><b>Jon Tenari elkarriketa</b></p> <p>Jon Tena arrasatearra kirol etxeko gimnasioan ikasketa-praktikak egiten hasi da.</p>
---	--	--

### ASTEKODATUA

# 183

#### HERRITARREK EMAN DUTE IZENA ETXEBIDEN

183 aretxabaletarrek gura dute babes ofizialeko etxebizitza bat. Horietatik, 127 lagunek etxebizitza erosi gura dute. Beste 30, berriz, gertu daude etxebizitza errentan hartzeko ere.

### BESTEKEESANA

**“Nik uste du Athleticek bere filosofiaregatik ez duela horrenbeste etsi edo amore eman. Filosofia horri esker klub hau beste batzuekiko erreferentzia bihurtu da eta, gainera, horri esker lortu dugu beste klub guztien artean desberdinak izatea. Guri ez zaigu emaitza bakarrik axola, emaitza hori nola lortu dugun ere garrantzitsua da guretako. Arrazoi horregatik, gure jarraitzaile ez direnen artean ere Athleticek garaipenek ondorio handia dute. ‘Dena’ izeneko proiektuan filosofia hori jarri dugu oinarrian. Eta, orain, ildo berean jarraitu gura dugu. Emaitzek ere ez gaituzte filosofia horretatik baztertuko. Gure jendearekin eta Euskal Herri osoarekin dugun erreferentzia puntua da.**

**ANDONI ZUBIZARRETA**  
‘DV’/02-10-26

### HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



*Eskopeta eskutan...*

**E**ta ibili munduan. Eguzkiaren argiarekin batera datozen tiro hotsak ehiza sasoiaren bete betean murgilduta gauden lekuko dira.

Nekazaritza sortu aurretik janaria lortzeko era bakarra eta unibertsa izan dugu jarduera hau (noski, tartean, fruitu bilketa eta arrantzak), baina, urdailaren agintea, egun, buruak ordezkatu duenean, garai bateko “ofizioa” afizio bilakatu da iritzi ezberdinak ondotik ekarriaz; zenbat buru, zenbat aburu.

Ehizatzearen ekintza bera ez dut arbuiatzen; aitzitik, hegodunetatik hasi eta lau hankako ehizaki guztien janzale nauzu! Ehizaren aldekoa naiz kontrako banoago; haatik, zenbait ehizatzearen jokoerak erretzen nau.

Maizen entzundako kexa goi aldeko postuetan jaso gabe ikusi izan diren kartutxo azalei zor bazaie ere, eta naturaren berezko estetika urratzen duten

kontu horiez aparte, okerrago deritzat, baserriar naizen aldetik, etxeko larrinean tiroka aritzeari. Danbatekoen zarata ulergarria izan, bada, baina perdigo zaparrada bat noiz jasoko beldurrez egotea ez da broma.

Asalagarria da norberaren

lur eta abereak arrisku horren pean edukitzea. Anima-liak uxatzea eta, zauritzea inoiz, oso ohikoa da eta ganadu-bazka diren belardiak kartutxo azalez josita aurkitzea zer esanik ez. Hori gutxi balitz, zenbait ehizatze

zelaierako sarbideak zabalik utzi izan dituzte ardi nahiz behien ihesa ekarriaz. Ondorio bera dakarte langa, alanbre edota dena delako itxiturak ebaki, erre ala haustek; baita sasitzan igarobidea eratzek. “Theska doan ehizakiaren atzetiko lasterkaldia” ez da halakorik egiteko pisuzko arrazoia.

Ez da alferrik lehenean barka, bigarrenean marka, hirugarrenean urka esaera...

**“Ehizatzearen ekintza bera ez dut arbuiatzen; aitzitik, hegodunetatik hasi eta lau hankako ehizaki guztien janzale nauzu!”**






## BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Mendira  
noa

Datorren astean natura gertu-gertutik bizitzeko aukera izango dugu Murruxiko mendi taldearen eskutik. Gainera, aurtengoan bi atxabaltarren esperientzia ezagutzeko aukera ere izango da. Iker Akizuk Indian bizikletan bizitakoen eta Nepaleko *trekking*-aren berri emango digu. Eta hori gutxi izango balitz, **Eneka Guenetxeak** Patagoniako parajeak erakutsiko dizkigu. Ikusteko moduko parajeak izango dira. Badakizue, ez galdu aukera, bi atxabaltar horien abenturak ez dira nolanhikoak izango eta. Ni animatuko naiz, egunen batean paraje haiek gertu-gertutik ezagutzea gustatuko litzaidake eta. Horrez gain, bi mendi irteera egingo dira. Bata, hemen inguruan, eta Toloñora bestea. Biak dira interesgarriak, batzuetan etxe ondoan duguna ez dugu ezagutzen eta.

Etxe kontuekin jarraituz, aurrekoan **Javier Madrazo** egon zen gurean. Etxebizitzen inguruan berbetan aritu zen, baina gazte gutxi izan ziren hitzaldian. Etxebizitza ez al da, ba, gazteei horrenbeste burukomin ematen dien gaia? Han batu zen jendea ikusita ez du horrela ematen. Dena dela, 14 etxebizitza sozial egingo dira herrian, eta interesatzen zaizuenoi, argi ibili.



Solohandiko etxebizitza guztietan egingo dituzte ur eta saneamendu azpiegiturak zaharberritzeko lanak.

LEHIAKETA/ Proiektua eginda dago, eta orain, lanak nork egingo dituen erabakiko dute

Solohandiko ur eta saneamendu  
azpiegiturak zaharberrituko dituzte

AMAGOIA LASAGABASTER

**Urtero-urtero, Udalak herriko etxebizitza batzuetako ur hornidura eta saneamendurako hodi guztiak berritzen ditu. Aurten, hobekuntza horiek Solohandiko etxebizitzetan egitea erabaki dute. Horrez gainera, zona hartako bide bat zabalduko dute.**

Joan den urtean, Loramendi kaleko etxebizitza batzuetan hornidura sare guztiak zaharberritu zituzten. Datorren urtean, berriz, Solohandikoei tokatuko zaie. Udalak dagoeneko proiektua eginda dauka, eta orain, lanak nork egingo dituen erabakitzeko lehiaketa antolatu du. Udalak, proiektua aurrera atera ahal izateko, lehenik eta behin, Horniketa eta Saneamendurako Plan Bereziaren proiektua eta administrazioko klausula partikularren orria onartu zuen azaroaren 4an egingo dako ezohiko osoko bilkuran.

Udalaren asmoa da datorren urtean Solohandiko etxebizitza guztietan ur eta saneamendu azpiegitura osoa behar bezala jartzeta. Horretarako, 205.398,58 euroko aurrekontua onartu du.

## URTEROKO LANA

Udalak urtero egiten du ur hornidura eta saneamendu lanen bat. Horregatik, udal aurrekontuak onartzeko orduan ere beti gordetzen du kopuru bat lan horiek egin ahal izateko. Orañ dela bi urte, aldiz, kolektorean lanak zirela eta, ez zen inongo azpiegiturarik zaharberritu.

*Aretxabaletako  
Udalak 205.398,58  
euroko aurrekontua  
onartu du lan  
horiek egiteko*

Dena dela, etxebizitza zaharretan horrelako lanak egiteko behar handia ikusten du Udalak, eta etorkizunean beste zona batzuetara zabalduko dituzte horrelako proiektuak. Hirigintza Zerbitzuaren aurreikuspenen arabera, hurrengo zaharberritze lanak Loramendi aldeko Zaráia eta Gorbeia kaleetan egingo dituzte.

## SOLOHANDIKO BIDEA

Ur hornidura eta saneamenduko azpiegiturako lanak aprobetxatuta, beste lan bat ere egin gura du Aretxabaletako Udalak Solohandi inguruan.

Gaur egun, Solohandiko etxebizitzek oso sarbide estua dute. Batez ere, bideko sarrera nagusia da estua, eta handik ez dira autoak sartzen. Hori arazo handia izan daiteke egunen baten, esaterako, ambulanzien batek hortik sartu behar badu. Hori dela eta, zaharberritze lanak egin bitartean, bide hura zabaldu eta egokitu egingo dute.

## LABUR

Larrinoko bidea  
itxita egon da  
zenbait unetan


Larrinoko bidea konpontzeko lanak direla eta, oraingo astean, zenbait unetan, behintzat, langileek bidea itxi egin dute. Bidea itxita izan den tarte horietan ibilgailu guztiak Larrinoko Zuatzu baserri ondoan dagoen bidetik desbideratu dituzte.

LASAko lantoki  
zaharra botatzeko  
baimena eman dute

Udalak eman du dagoeneko LASAko lantoki zaharra botatzeko baimena. Eraispin lanak Gasteizko Urbascos enpresa eraikitzailek egingo ditu. Dirudenez, gainera, presa handia dute, eta laster hasiko dira lan horiek egiten. Gero, leku hartan etxebizitzak egingo dituzte.

Osasun etxean odol  
ateraraldiak egingo  
dituzte

Aretxabaletako osasun etxean odol ateraldiak egingo dituzte ondorengo egunetan: azaroaren 18an, azaroaren 25ean eta abenduaren 2an. Odol ateraldi guztiak arratsalde egingo dituzte, 16:15etatik 20:00etara bitartean. Informazio gehiagorako deitu 943 71 19 59 telefono zenbakira.



*Hirusta  
Jatetxea*

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA



**URBALTZ**  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETA

## DOIKALSE

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 82 44



*Matikua  
jatetxea*

Azatza auzoa  
ARETXABALETA  
943 79 16 68

## GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28



**BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK** / Javier Madrazok berbaldia egin zuen azaroaren 6an

# Datorren urtean 14 etxebizitza sozial egingo dituzte Aretxabaletan

AMAGOIA LASAGABASTER

**Azaroaren 6an, Eusko Jurlaritzako Etxebizitza eta Ongizate Sozialeko sailburu Javier Madrazok eta Etxebizitza sailburuorde Javier Deanekek berbaldia egin zuten udaletxe-ko ganbaran. Babes ofizialeko etxebizitzen gaineko politika berria aurkeztu zuten.**

Eusko Jurlaritzako Etxebizitza eta Ongizate Sailak etxebizitzen arloko 2002-2005 Plan Artezlea jarri du abian. Javier Madrazok zuzentzen duen proiektu horren helburua da babes ofizialeko etxebizitzen merkaturua sendotzea. Horretarako, zenbait neurri hartu dituzte, eta joan den azaroaren 6an, berrikuntza horiek guztiak azaltzeko berbaldia egin zuten Javier Madrazok eta Javier Deanekek. Horrez gain, Aretxabaletak gaur egun bizi duen egoera ere izan zuten mintzagai. Eta, besteak beste, datorren urtean 14 etxebizitza sozial egingo dituztela iragarri zuen Javier Madrazok.

### PLAN BERRIA

Javier Madrazok etxebizitzekin daukagun arazoak irtenbide zaila duela onartuta hasi zuen Aretxabaletan egindako berbaldia. Haren iritziz, honakoak dira gaur egun etxebizitzen gehiegizko salneurrien arrazoirik aipagarrienak: etxebizitzak egiteko dagoen lur eskasia eta lurjabeek egiten duten espekulazioa; lur-jabetzaren kultura tradizionala; etxebizitzak erostea salerosketa inbertsio moduan; eta, azkenik, gaur egungo giza baliabideen urritasuna. Madrazoren esanetan, lau arazo horiei aurre egin eta euskaldun guztiondako etxebizitza politika berria egitea beharrezkoa da. Horretarako, hain justu ere, egin dute etxebizitzen gaineko 2002-2005 Plan Artezlea. Proiektu horren arabera, Eusko Jurlaritzako Etxebizitza eta Ongizate Sailak ahalegina egingo du hamar urteren bueltan babes ofizialeko etxebizitzen merkaturak etxebizitza askeen merkaturua gaindi dezan.

Gaur egun, babes ofizialeko 25.400 etxebizitza eskaintzen dira



Javier Deaneekin eta Javier Madrazorekin batera EBko Jaime Muxika ere izan zen.

*Eusko Jurlaritzak  
2003. urteko  
ekainean hasiko  
ditu 14 etxebizitza  
sozial egiteko lanak*

Euskal Autonomia Erkidegoan. Etxebizitza horien eskaria, berriz, askoz handiagoa da. Etxebidieren datuen arabera, 75.000 lagunek eskatu dute horrelako etxebizitza bat. Hortaz, orekarik eza izugarri da, baita Aretxabaletako kasuan ere.

### 14 ETXEBIZITZA SOZIAL

Eusko Jurlaritzak 2003. urteko ekainean hasiko ditu Kamiñerokua baserria dagoen lekuan erren-

*Aretxabaletan  
dagoeneko 183  
lagunek eskatu dute  
babes ofizialeko  
etxebizitza bat*

tan emateko hamalau etxebizitza sozial egiteko lanak. Etxebidieren datuen arabera, baina, Aretxabaletan dagoeneko 183 lagunek eskatu dute babes ofizialeko etxebizitza bat. Eskaeraren eta eskaintzaren arteko desoreka, hortaz, handia da gurean ere.

Berbaldia amaitzeko, Javier Madrazok eta Javier Deanekek gomendioa egin zuten Etxebidieren 012 zenbakira deitu eta informazio gehiago eskatzeko.

## LABUR

### Telekomunikazio enpresek euren azpiegiturak egin ditzaten baimena eman du Udalak

Udalak herrian zehar telekomunikazio tresnen eta elementuen kokapena, instalakuntza eta funtzionamendua arautzen dituen baldintza urbanistikoen gaineko ordenantza onartu du. Horren arabera, Udalak jakinarazi gura die telekomunikazio enpresa horiei guztiak oraintxe dutela aukera euren azpiegiturak herrian sartzeko. Dagoeneko Euskaltel enpresak erakutsi du interesa, eta, seguruenik, Euskaltel bera izango da herrian kablea sartuko duen enpresarik bat. Telekomunikazio enpresek orain eskaintzen zaien aukera aprobetxatzen ez badute, gerora, beste urte askoan ez dute kablea sartzeko eskubiderik izango.

### ATZEGIk Durana kalean daukan etxebizitzan bost lagun bizi dira dagoeneko

Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako guraso elkarteak (ATZEGI) Durana kalean daukan etxebizitzan bost lagun bizi dira dagoeneko. Horieta bat, gainera, Iñaki Iturbe aretxabaletarra da. Urriaren 28an hasi ziren ATZEGiko etxebizitzan bizi izaten, eta oraingoz bost bakarrik badira ere, hemendik otsailera bitartean beste zazpi lagunek osatuko dute etxebizitza. Izan ere, guztira, 12 lagunendako lekua dago. Adimen urriko lagun horiei laguntza ematen, berriz, Aitziber Sorraluze etxebizitzako arduraduna eta beste bost langile daude. Oraingoz, Aitziberren esanetan, bizi-lagun guztiak pozik eta gustura daude etxebizitzan.

## TXUTXUMUTXUA



### Merkatariak gustura Paketeria ikastaroan

Merkatariak etengabe ari dira euren lanbidea hobetzeko hezten. Horren adibide dira azkenaldian antolatu dituzten ikastaro guztiak: informatika ikastaroa, erakusleihen ikastaroa, euskara hobetzeko eskolak... Denetarik egin dute dagoeneko. Oraingoan, berriz, Gabonak gertu daudela eta, Loramendi Euskara Elkarteak oparietako paketeak egiten ikasteko ikastaroa antolatu die. Hortaz, aurten, seguru kolore eta forma guztietako opariak ekarriko dizkigula Olentzerok!

**TABERNA**  
**ARLUTZ**  
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

**MartiW**  
Bere bezeroen zerbitzura  
Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

**IZOTZ**  
Taberna  
Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABALETA

**MAITE**  
ileapaindegia  
Sarasate, • 943 79 59 05  
ARETXABALETA



JON TENA/KIROL ETXEKO GIMNASIOKO MONITOREA

## "Gimnasioan dauden makinak ez dira nolana erabili behar"

AMAGOIA LASAGABASTER

**K**irok etxean abian jarri dituzte gimnasia egiteko saioa pertsonalizatuak. Jon Tena monitorea hil honetan hainbat elkarrizketa egin ditu, saio horiek gertatzeko. Jon ikasketa-praktikak egiten dabil kirol etxean.

### Nolatan egingo dituzu praktikak kirol etxean?


Arizmendin Kirol ikasketak egiten ari naiz, eta urtero praktikak egin behar izaten ditugu inguruko kiroldegi edo kirol etxeren baten. Niri, Aretxabaletako kirol etxean egitea tokatu zait.

### Eta zein izango da zure lana?

Oraingo hilean, azaroan, kirol etxeke gimnasio gelan saio eta ikastaro pertsonalizatuak emateko zerbitzua jarri zuten abian. Zerbitzu horretako arduradun lanak egingo ditut.

### Zer egin duzu orain arte?

Gimnasioko erabiltzaileei elkarrizketak egiten ibili naiz. Lehenengo eta behin, datu pertsonalak jasotzen dizkiet; gero, euren kirol ohituren berri eta orain arte izan dituzten lesioen gaineko xehetasunak ematen diz-



A.L.

*"Dozena bat elkarrizketa egin ditut, eta gehienek euren egoera fisikoa hobetu gura dute"*

kidate. Horren ondoren, informazio hori guztia jaso, eta era-

biltzaile bakoitzari kirol saio pertsonalizatuak gertatzen dizkiet.

### Ikastaroak ere antolatzen dituzu, ezta?

Bai. Garrantzitsua da gimnasioan dauden makinak ondo ezagutzea. Bakoitzak bere erabilera finkoa dauka, eta ez dira nolana erabili behar. Hori kontuan hartuta, ikastaro labur batzuk ematen ditut. Helburua da gimnasioan dabilenak argi izatea zer egin behar duen eta zer ez duen inoiz egin behar.

### Arriskutsua da gimnasioan oinarrizko ezagupen barik ibiltzea?

Bai. Mugimendu asko egin behar dira, eta lesio ugari izaten dituzte erabiltzaileek. Gimnasioan denak dauka garrantzia: saioak egiterakoan erabiltzen den ordenak, mugimenduen erritmoak...

### Orain arte egin dituzun elkarrizketetan zer eskatzen dizute erabiltzaileek?

Dozena bat elkarrizketa egin ditut, eta gehienek euren egoera fisikoa hobetu gura dute.

### Giharrek handitu gura dituztenak ere joaten dira?

Bai, horrelakoak ere badaude, baina argi izan behar dute bi egunean ez direla ametsak gihar horiek lortzen.

KROSA

## Berrogei aretxabaletarrek bukatu zuten Behobia-Donostia lasterketa domekan

Joan den domekan, aretxabaletar ugari hurreratu zen Behobia-Donostia herri lasterketara. Aurten, guztira, 40 aretxabaletarrek hartu zuten parte lasterketa horretan. Horietatik zazpi, gainera, emakumezkoak izan ziren. Azkenaldietan moduan, markarik onena egin zuen aretxabaletarra Ramon Jausoro izan zen. Ramonek ordu bete eta zortzi minutuan amaitu zuen proba.

MENDIA

## Gaur hasiko da Murruxiko Mendizale Elkarteak antolatutako 2002 Mendi Astea

Gaur, egubakoitza, *Europar izotza eta elurra* izeneko diapositiba emanaldiarekin hasiko du Murruxiko Mendizale Elkarteak 2002 Mendi Astea. Hain justu ere, azaroaren 24ra bitartean izango dira ekitaldiak. Tarte horretan, diapositiba emanaldiez gainera, mendi bizikleta martxa eta Toloño mendira igotzeko irteera antolatuko dituzte.

## PARTIDUAK

### FUTBOLA

#### UDA-Arrate

2. mailako erregionalak.

Zapatua, 15:30. Ibarra.

#### UDA(b)-Eibar

Bigarren mailako gazteak.

Zapatuan, 17:30. Ibarra.

#### UDA(c)-Gazteak

Bigarren mailako gazteak.

Domeka, 11:00. Ibarra.

### PILOTA

#### Aretxab.(2)-Eibar (2)

Nagusiak.

Egubakoitza, 20:00.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

#### UDA 0 Zarautz 3

Preferentea.

#### Anaitasuna 1 UDA 0

Gazteen Euskal Liga.

#### Antzuola 3 UDA 5

Bigarren mailako erregionala.

#### UDA (b) 3 UDA(c) 0

Bigarren mailako gazteak.

#### UDA 4 Urola 0

Lehenengo mailako kadeteak.

#### Eibartarrak 1 Anaitasuna 1

Infantilak.

### PILOTA

#### Aretxab. 22 Ilunpe 17

Lehenengo mailako gazteak.


#### Elgeta. 22 Aretxab. 06

Nagusiak

#### Aretxab. 22 Behar-zana 17

Nagusiak.

# OSASUN GIDA



## ARETXABALETA

### DENTISTAK:

#### ■IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista

Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

#### ■ANGEL BENGUA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa

Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

### PARAFARMAZIAK:

#### ■FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria

Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

### YOGA:

#### ■SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia

Lezama komertzial zentrua

eta Santa Kurtz, 24. Tel: 616 965 795

### MASAJEAK:

#### ■FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia

Basabe indusrialdea, Pab D z/g

Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

#### ■LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista

Osteopatia kraneala: estrukturala eta

funtzionala, lotura muskularrak

Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34

#### ■EKIN FISIOTERAPIA ZENTRUA

Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa,

akupuntura, osteopatia.

Belorrieta,6-7. Tel: 943 79 95 64

## ESKORIATZA

### FARMAZIA:

#### ■BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE

#### PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia,

formula magistralak

Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

### DENTISTAK:

#### ■ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika

Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.

Tel: 943 71 47 36

### ORTODONTZIAK:

#### ■AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia

Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36



MUNDUTARRAKARETXABALETAN

IMANOL ETXABE

MEXIKON, GUADALAJARAKO ZAPOPAN BIZI DA

“Mexikarrak lanean ikusterakoan harrituta gelditu nintzen”

AINTZANE GARDOKI

Hilabete bakarrik daramate Imanolek eta emazteak Mexikon, Zapopan, konkretuki, sei milioi lagun dituen hirian. “Autoz edo autobusez joan behar gara alde guztietara. Autoz dagoeneko galdu gara dozena bat aldiz”, esan digu bizileku berritik Imanolek. Beste guztien gaineratik, hiru gauzek eman diote atenzioa: “Batetik, imajinatzen genuena baino askoz ere garestiagoa dela hemen bizimodua; bestetik, mexikarrak oso garbiak direla. Hiriak ere oso garbi daude; eta hirugarrenik, horrenbeste topiko entzun eta gero, mexikarrak lanean ikusterakoan harrituta gelditu nintzen; oso fiñak dira”.

Lan kontuek eraman zituen Imanol eta emaztea Mexikora. Ez da denbora askorik pasatu herria utzi zutenetik: “Familiakoak, lagunak, eguneroko bueltatxoak... faltan sumatzen dira, baina gaur egungo teknologia modernoenkin, poltsikoko telefonoa dela, Internet dela... moldatzen ari gara”, esan digu. “Antzerkiak, zinemak, jatetxe mordoak,

turismorako aukera asko eta beste zeregin ugari dago egiteko”. Turismorik ez dute egin oraindik, baina Mexikoko telefono zerrenda ondo aztertu dute, itxuraz: “Agirre, Arana,

“Agirre, Arana...  
6.395 familia  
kontatu ditugu  
abizen  
euskaldunarekin”

Arrieta, Etxabe, Gabilondo, Igartua, Aizpurua, Iturbe, Lasa... 6.395 familia kontatu ditugu abizen euskaldunarekin”, gaineratu du Imanolek. Baina Euskal Herriaren beñri ere izaten dute: “ARETXA-GAZETARIK ez, baina beste egunkari batzuk eskura izaten ditugu. Domeka eguerdian, gainera, Interneten sartu, eta *zast!* Beti pozik, Realak oraingoan ere irabazi!”. Bukatu aurretik, Imanolen partetik, goraintziak aretxabaletarrei Mexikotik.



HURRETIK



Eneritz  
Jauregialzo

Kixkur-eko pelukerie

Eneritzek umetatik argi euen egunen baten pelukerie izengo zala. Eneritzen muñekaxo danek ulie motz-motz egindde buketan euen. Oin, barrez, bezeruek primeran zainketan dittu.

Noix zabaldu zeuen Kixkur pelukerixie?

Oin dala zazpi hillebete.

Zergaittik Kixkur izena?

Ez dakit; izena jarri biher jakon, eta horixe okurridu jaten.

Zeuri ze orrazkera gustetan jatzu?

Oin, erdi rubixo tintaute dauket, baiñe ez dakit, sarri aldaketan dot.

Uliandako kolore gustoko bat ?

Tono rubixuek gustetan jat.

Zeinek orrazketan zau?

Nik neuk, normalien.

Zeintzuk die oingo tendentziak?

Bakoitxak gure dauen moduen erueten dau ulie, baiñe, hala eta be, koloriek asko ikusten die rebistetan.

Oin ze kolore dator?

Itxura danez, berenjena kolore dator barriro be. Rubixue, aldiz, beti erueten da, horren modie ez da pasetan.

Pelikula bat, liburu bat eta musika talde bat aukeratzekotan, zeintzuk ?

*Ocean's eleven* pelikulie, Red Hot Chili Peppers taldie eta *Los pilares de la tierra* nobelie.

Urtaro bat?

Udaberritik udara bittarteko hillebetiek gustetan jat.

Aretxabaleta gustetan jatzu?

Bai.

Herriko txutxumutxu askotaz enteretan zara?

Gustauko litxakidana baiño gehixagotaz enteretan naz sarri.

Ulie moztarakuen neskak ala mutillak izeten die balientiaguek?

Normalien, neskak.

A.L

NIREBIDAIAHURA/ Irma Arabaolaza

Thailandia / 2002ko azaroa

Irmak eta Luisa lagun asturiarrak Thailandia hegoaldeko uharteak atzean utzi, eta Asiako herrialde hartako iparraldean eman dituzte azkeneko egunak: Chiang Mai inguruan, hain zuzen. “Oso herri polita da Chiang Mai, eta jendea ere oso jatorra da”, esan digu Thailandiatik Irmak.

Hiru eguneko *trekking*-a egin dute Irmak eta Luisak, Australiako bi lagunekin eta beste zortzi turistekin batera. “Urtarua izugarriak ikusi genituen. Karendarren tribura heldu ginen, oihanean barrena bi orduan ibili eta gero. Tribu hura Thailandiako handientarikoak da; egurrezko txaboletan bizi dira”. Hurrengo goizean beste hiru orduz oihanean ibili ondoren, elefanteen kanpamendu batera heldu ziren: “Elefante gainean jartzeko prestatzen ari ginela, hara non, elefante batek hanka egin zuen. Bueltan ekarri zutenean, zotz egin eta nori tokatuko turistekin ezer gutxi jakin gura zuen elefantetzar hura? Bai, bai, Luisari eta bioi!”, kontatu digu Irmak. Elefante gainean, errekan zehar, lahutarren herrira heldu ziren. “Elefantea oso ondo portatu zen gurekin”.

Baina ez zen hor amaitu neska bion abentura; izan ere, hurrengo egunean esperientzia gogorragoari egin behar izan zioten aurre: “*Bamboo rafting*-a egin genuen. *Rafting*-a itzuli egin zen; guri ez zitzaigun ezer gertatu, baina gure motxilak erreka barrenean gelditu ziren... baita gure argazki-makinak ere. Gidariak esan zigun azkeneko 10 urteotan ez dela horrelakorik gertatu, baina gu parean suertatu! Dena dela, esperientzia ezin hobea izan zen”. Thailandiako hainbat plater egiten ikasi dute Irmak eta Luisak; currya oilaskoarekin, platano erreka koko-esnearekin, *noodle*-ak tai era... Hurrengo berriak Australiatik emango dizkigute.

AINTZANE GARDOKI



Thailandiako iparraldean hainbat tribu bisitatu zituzten.



“Turistekin  
ezer gutxi  
jakin gura  
zuen elefantea  
guri tokatu!”

“Rafting-a  
itzuli egin  
zen; gure  
motxilak han  
gelditu ziren”

Taberna  
Berri  
jatetxea

Durana, 26  
ARETXABALETAN  
Tel.943 79 20 67

ZARAIA  
TABERNA

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan  
Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK

Angelines  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETAN

Aretz

taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETAN



# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 15a / 101. zenbakia


KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Ikasleak museoetara hurreratzeko asmoz, Artium autobusa bi astez herrian

AINTZANE GARDOKI

Artium-ek, Arte Garaikidearen Museo Zentroak, gure garaiko artea hedatzea du helburu. Gasteizen inauguratu zuten museoa, 2002ko apirilean, eta zenbait jarduera eskaintzen ditu. Bi astez egon da Artium autobusa Arizmendi Ikastolako Almen gunean.

Esan bezala, Artium-ek gure garaiko artea hedatzea du helburu. Horretarako, bilduma iraunkorra du Gasteizen ikusgai. Aldi baterako erakusketak ere antolatzen ditu, eta ikas jarduerak ere eskaintzen ditu; horren lekuko da azkeneko bi asteotan ikasleak museoetara hurreratzeko helburuarekin Arizmendi Ikastolan izan den autobusa: "Artium eskola egitarauak zenbait fase garatzen ditu; hemen, eskolan, ikaslearen eta museoaren arteko lehenengo harremana lortu gura dugu. Horren ondoren, ikasleak -guztiak ez- Gasteizera joango dira Artium bisitatuzera", azaldu digu Arizmendi Ikastolako Arte irakasle Maite Beitiak. Sei eta hamasei urte bitarteko ikasleek eta Batxilergo arteko ikasleek, guzti-



Ikastola apustu berezia egiten ari da aspaldian, ikasleek museoetara jarrera irekia izan dezaten.

ra, 635 ikasle bisitatu dute autobusa: "45 minutuko saioak egin dituzte. Museoaren eraikinaren ingurukoak bideoan erakutsi dizkiete. Lanik esanguratsuenekin

diapositiba emanalditxoak ere izan dute, eta adinaren arabera hainbat ekintza egin dituzte", esan digu Maitek. "Museoak gure bizitzan gauza arrunta izatea gura dugu,

eta ez bizitzan behin bisitatzen den gauza bitxia. Museoak bisitatzeke ohitura piztu gura dugu. Gure ikastola horren aldeko apustua egiten ari da aspalditik".

*"Eskolan ikaslearen eta museoaren arteko lehenengo harremana lortu gura dugu"*

*"Ikasleek, adinaren arabera, hainbat ekintza egin dituzte; 45 minutuko saioak egin dituzte"*

*"Museoak gure bizitzan gauza arrunta izatea gura dugu, ez gauza bitxia"*

### ATREBENTZIAEZPADA/ Etxekoekin museoetara joateko ohiturarik baduzu? Gustatzen zaizu joatea?



**IÑAKI SALABERRIA**  
5 urte



**LEIXURI ERRUZO**  
6 urte



**IRATI ERAÑA**  
7 urte



**JORGE LEGORBURU**  
13 urte



**MAIDER GONZÁLEZ**  
13 urte



**JULEN AGIRIANO**  
14 urte

Ni Guggenheimen egon naiz. Margolanak ikustea ez zait askorik gustatzen, aspertu egiten naiz. Baina niri eguzkia eta mendiak pintatzea gustatzen zait.

Artium-en egon naiz; izar zuri asko ikusi nituen. Autobusa asko gustatu zait. Gurasoei esango diet egun baten denok joango garela beste museo batera.

Eskoriatzako Museoan egonda nago, eta Bilbokoa ere bai. Museoetan gauza politak egoten dira. Aitarekin eta amarekin Artium-era joango naiz.

Ez daukat ohiturarik etxekoekin museoetara joateko. Miramongoa asko gustatu zitzaidan, baina, bestela, aspertu egiten naiz. Autobusa aspergarria izan da.

Oporretan ikusten ditugu Alhambra bezalako lekuak, baina Euskal Herriko museoetara ez naiz inoiz joan gurasoekin. Artium-era joango garela uste dut.

Ez naiz inoiz museo batera joan gurasoekin. Ez dugu ohiturarik eta ez zaigu gustatzen. Autobusean ikusitakoa ondo egon da, dibertigarria izan da.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**'URAK DAKARRENA...GLU, GLU'**  
Gaur, HUHEZIn, 22:30ean.

**KONTZERTUA GAZTETXEAN**  
Gaur, Jousilouli eta Neu taldeak gaztetzean, 22:30ean.

**ATE IREKIAK ARIZMENDIN**  
Bihar, zapatua, 16:00etan, Almen gunea ezagutzeko aukera. Pailazoak, lantegiak, eta abar.

**ESKULAN LANTEGIAK**  
Azaroaren 19an, Gorosarri plazan, 17:00etan. Umeendako.

**'PIEDRAS' ZINE-FORUMA**  
Eguenean, 18:00etan, Museo Eskolan.

**AXTROKIRENAGENDA**

**TAKOLO, PIRITX ETA PORROTXEN EMANALDIA**  
Pailazook azaroaren 30ean egingo duten emanaldia prestatzeko, elkarteak laguntza eskatu die herritarrei. Herritar ugari eman ei dute izena.

**GASOLIO ISURKETA GERTATU DA HERRIAN ASTEAN**

**Erregai biltegian matxura izan, eta 2.400 litro gasolio isuri dira ibaira**

AINTZANE GARDOKI

Joan den domekan, iluntzeko zortziak inguruan, sekulako gasolio usaina zabaldu zen Eskoriatzako kaleetan. Herritar batek baino gehiagok, larrituta, Ertzaintzara deitu zuen. Ertzaintzak Deba ibaian erregai mordoak aurkitu zuen.

TESA enpresako erregai biltegi baten matxura gertatu zen. Horren ondorioz, berogailuetarako erabiltzen duten 2.400 litro gasolio ibaira isuri zirela jakinarazi digu Inaki Yerobik, TESA-ko gerenteak. Zorritzareko istripuztat jo dute TESako ardura-dunek. Matxura astelehenean, goizeko zazpiak ingururako, konpondu zuten. Txostena Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileira eta Uren Zuzendaritza Orokorra igorri dute. Bai batak zein besteak enpresari ezarriko dioten zigorraren zain daude.



Errekerara isuritako 2.400 litro gasoljok sekulako usaina zabaldu zuten herrian.

**TXUTXUMUTXUA**



**Herritar ugari Behobian**

Eskoriatzar ugari hartu zuten parte joan den domekan Behobia-Donostia lasterketan. Beste batzuek esan digute, korrikan ez egin arren, kirola aitzakia hartuta lagunak animatu eta egun polita pasatu zutela Donostia aldean. Heldu zaizkigun datuen arabera, eskoriatzarren artean Aitor Kortazarrek egin zuen denborarik onena (1:20:13). Jon Leturiaga izan zen bigarrena, eta hirugarrena, berriz, Inigo Eraña. Nesken artean Agurtzane Iñurrategik egin zuen denborarik onena (1:48:38). Euskal Herri osoari bira eman dion argazkian Ander Agiriano ageri da. /A.G.

**LABUR**

**Pantxoak eta Peiok betiko kantuak eskainiko dituzte**

Bost urtez diskorik atera barik egon ondoren, Pantxoak eta Peiok lapurtarrek *Lapurtar Kobleriak* kaleratu dute. Datorren barikuan, 22:30ean, Eskoriatzako kiroldegian izango dira diskoa aurkezten, eta, horrez gain, betiko kantu zaharrak abesten. Esan digutenez, "diskoaren helburua da euskaraz kantatzeko gozamina elkarrekin partekatzea". Besteak beste, Manex Pagolaren, Zaldubiren, Piarres Ithurbideren, Martin Arruperen eta Ganix Halzueten letrak jaso dituzte.

**Ehiztarien iritziz, usotan egiteko garaia joan da**

Urriaren 12an hasi zen ehiza txikiko denboraldia. Eskoriatzan dauden 122 postuetan ehizan egin ahal izateko egunero egin dute ehiztariak zozketa. Joan den martitzenaz geroztik, baina, ez da zozketarik izan. Nahiz eta denboraldia ez den amaitu, "usotan egiteko garairik onena joan da", esan digu Ganboak, Aldaipeko presidentek. Dena dela, ehiztariak oraindik badute aukera ehizan egiteko. "Ez da ibili nafar haizerik, baina denboraldia nahiko ona izan da", esan digu Ganboak.

**'Gabonbidean', herriko umeak protagonista**

Eskoriatzako Udalak eta Tortolis ludotekak umeendako Gabonbidean programa abiarazi dute. Azarorako hainbat ekintza antolatu dituzte. Datorren martitzenean, 17:00etan, umeendako lantegiak egingo dituzte, eta asteburuan, hau da, hilaren 22an, 23an eta 24an, jostailu erakusketa egingo dute kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Hilaren 25ean, berriz, *Teknologia berria eta haurrak interakzioan* berbaldia egingo dute.

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



**EDURNE**

Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA



MIRENTXU  
**TABERNA**

Kafe goxoa hartzeko  
Tel.: 943 71 41 67

**LENIZ, C.B. KONPONKETAK**

**LENIZ**  
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61



# Egun polita pasatu zuten gatzagarrek eta kanpotik etorritakoek joan den domekan

AINTZANE GARDOKI

Jende asko etorri zen Gatzagara joan den domekan izan zen X. Langintzen Ferixara. Bezperako eguraldi txarrak beldurtu egin zituen antolaketa lanetan ari zirenak, baina domekan, eguraldiak gogotik lagundu zuen. Artisaauk, eguna amaitzeaz, pozik zeuden salmentekin, eta herriko emakumeek ere egindako talo eta buzkantza guztiak saldu zituzten. Lixibaren erakustaldiak arrakasta handia izan zuen bisitarien artean, eta Gatz Museoan ere jende franko ibili zen. Herritarrak pozik, hortaz, San Millanek utzitakoarekin.

*Domekan, frontoi ingurua eta herriko kaleak alaitzen herriko trikitilari gazteak ibili ziren*

*Umeez etxean egindako irasagar, marmelada eta bitxiak ere asko saldu zituzten*



Eguerdian hurbildu zen jende gehien taloak dastatzera.



Emakumeek egun batzuk lehenago egindako buzkantz guztiak saldu zituzten.



Koldo Azkoitiak eta Eugenio Otxoak eman zieten bisitariari Gatz Museoaren berri.



Lixiba erakustaldiak interes handia piztu zuen herritarren eta kanpokoek artean.



Txikienek ere etxean egindakoak saldu zituzten domekan, eta asko saldu zutela esan ziguten.

SAION DE BELLEZA  
OSASUNA ETA EDERGINTZA  
**DORLETA**  
Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

aroztegia  
**leniz**




- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

Aingerugardako ibilbidea  
Tel.: 943 71 49 36  
ESKORIATZA (Gipuzkoa)



**NAIRA**  
Taberna  
Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71



# GRUPO **RK UZ** 1950-2002




*Arkauz zure etxea da.*



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA




Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**  
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA







Aukera onenak.  
Ile apainena.

**Irudi**  
ileapaindegia

• Errekabarren 20, behea  
ARETXABALETA  
• 943 79 80 90

- Ile apaindegi mistoa
- Luzatzeak
- Makillajea
- Edertasun tratamenduak
- Solariuma

**ixkur**

• Aranburuzabala 30  
ESKORATZA  
• 943 71 30 31

- Ile apaindegi mistoa
- Luzatzeak
- Makillajea
- Solariuma

**KiXkur**  
ILEAPAINDEGIA

• Loramendi 11  
ARETXABALETA  
• 943 79 90 79

- Ile apaindegi mistoa
- Luzatzeak
- Estetika zerbitzua
- Solarium bertikala
- Masaje zerbitzua

**LA  
NODE**

• Intxartxueta 6  
ESKORATZA  
• 943 71 53 11

- Ile apaindegi mistoa
- Kalitate gorena
- Bezeroarenganako arreta zaindua

**MAITE**

• Sarasate 1, behea  
ARETXABALETA  
• 943 79 59 05

- Ile apaindegi mistoa
- Makillajea
- Era guztietako ile-biltzeak

**Villar**

• Olazar auzoa 9  
ESKORATZA  
• 943 71 50 42

- Ile apaindegi mistoa
- Ezkontzetarako ile-biltzeak

**ZIRT-ZART & ZIRT-ZART**

• Gorbea 2  
ARETXABALETA  
• 943 77 09 44

- Mistoa
- Ezkontzetarako orrazkerak eta makillajea
- Luzatzeak buruko leku hautatuetan
- Manikura